

KOLDO IZAGIRRE.—*Euskadi merezi zuten*. Hordago Publikapenak. Donostia, 1984.

Aresti liburu sailean Hordagok argitaratutako eleberri gisara idatzitako narrazioa.

Goiko botereetatik gertakizun eraginkorrek datozenean herri apalak nola hartzen eta eroaten dituen jakiteko liburu aproposa.

Egilea, bildutako gertakariz eta kondairaz baliatzen da. Berak zuzenki ezagutu etzuen garai jakin batean gertatuez, Errepublika etortzetik frankisten gerra bukatu arte. Zatikaturik eroaten du bere kontakizuna, baina zatiok ez daude horizontalki edo era linealean kontatuak, han-hemenkakoak sare batean harturik bezala baizik. Hala ere, denak dute elkarrekin zer ikusia, giro berak lotzen dituzenez. Kronolojia zainduarren, tokiz eta pertsonaiez alderantziak dakarzki. Gaur egun asko erabiltzen den egitura da, baina irakurleari haria erraz joaten zaiona. Horregatik, egitura horrek ez gaitu gehiegi betetzen. Idazkera aberatza du hitzez, irudimenez eta estiloz eta horrek laguntzen dio irakurgai atsegina izatera.

Euskal literaturan, zoritxarrez, gutiegi baliatu gara anaiarteko gerrate hortaz eta bere inguruaz. Baina materialik ez zen falta. Urteak igaro ondorean, nork pentsatuko zuen Koldo Izagirre bezalako gazte batek holako narraitiba eskaini behar zigunik? Normalagoa zen garai berekoek idaztea, baina ezer guti egin da. J. Eizagirrek utzi zigun *Ekaitzpean* (1948an Buenos Aires-en argitaratua), S. Salaberriak *Neronek tirako nizekin* (1964an Tolosako Auspoak), baina gainerontzean zer? Garapen ahula izan du gure literaturan zuzenean hainbeste ikutu gaituan gerra harek. Alde horretatik ere badu meriturik egileak. Ez baita edonolako bilketa. Liburuaren barna pasarte interesgarri asko adierazten ditu, eta holako gai bat tenple hortan idazteak ere baditu bere alde onak. Egileak bere burua ondo gordetzen du taldeetara irauli gabe, gaiak berak hortarako tentasiorik ematen badu ere.

J. S. M. .